

BILBAO BIZKAIA KUTXA - EUSKALTZAINDIA: LITERATURA-SARIAK

Egoitza, Bilbo, 1995-06-29

*Jon Mancisidor,
Bilbao Bizkaia Kutxako ordezkaria*

Gaur egun badirudi gauza naturala dela euskarazko literatur sariketak egitea, gure hizkuntza normaltzeko bidean dagoelako eta bide honetan jardutea logikoa iruditzen zaigulako. Zorionez, hauxe da gaurko errealitatea.

Baina ez da beti honela izan, ezta gutxiago ere.

Pentsa dezagun, orain dela hogeita hamabost urte, egoera politikoa oso bestelakoa zenean, euskaraz berba egitea ere hain gauza erraza ez zenean, zelako balioa zuen, euskaraz hutsez idatzitako lanentzako sariketa baterako deialdia egiteak. Ba, orain dela hogeita hamabost urte, hasi zen Bilbao Bizkaia Kutxa eta Euskaltzaindiaren arteko elkarlana, sariketa hauek aurrera ateratzeko.

Sasoi haietan gure izena ez zen BBK, Bizkaiko eta Bilboko Aurrezki Kutxa baino. Dena den, izena aldatu egin bada ere, euskal kulturari laguntza emateko gogoak, berdin irauten eta iraungo du.

Bestalde eta gaurko ekitaldiari dagokionez, esan, alde batetik, iazko lan irabazleak aurkezteko atsegina hartzen dugula, eta bestetik, aurtengo sariketerako deialdia egingo dugula.

Iazkoari dagokionez, hemen ditugu Xabier Mendiguren irabazle bikoitzaren lanak, *Bekatuaren itzala* eta *Hilerrri txikia*, eleberria bata eta antzerkia bestea. Beasaindar gazte honek, liburu mordoan argitaratu du dagoeneko, hogeitik gora, beraz, adinez gaztea bada ere, idazle beteranotzat har dezakegu.

Mirari García de Cortázar donostiarraren poema liburua, *Itzaleko hitzak*, izan zen iaz olerki saileko irabazlea. Ba, ordutik hona ez da urte erdi baino igaro eta beste sari bi lortu ditu jadanik, beraz, etorkizun handiko olerkari baten aurrean gaudela ziurra daiteke.

Azkenik, aurkeztuko ditugun irabazleen artean, Jon Alonso Fourcade iruinsemearen saio-liburua dago, *Idiaren eraman handia*. Honetaz ere esan beharra dago, ordutik hona beste sari bat irabazi duela, ipuin arlokoa hain zuzen.

Beraz, BBK-k eta Euskaltzaindiak babesten dituzten sariketa hauek, argi dagoenez, idazle eginak sendotzeko eta berriak ezagutarazteko balio dute, aurretiaz jarritako helburuak lasai beteaz.

Hau honela izanik eta amaitzeko, euskal kulturak gure babesa izango duela nahi dugu adierazi eta froga moduan, sariketa hauen beste deialdi berri bat gura dugu aurkeztu, bost sail desberdinetan, lau helduentzat eta bat gazteentzat, "Txomin Agirre", "Toribio Alzaga", "Felipe Arrese Beitia", "Mikel Zarate" eta "Resurrección M.^a Azkue", guztira ia lau milioi pezeta banatuko direlarik, gero, liburuak argitaratzeko konpromezu atsegina ere geure lepoan hartuz.

Beste barik, eskerrik asko gure hizkuntzaren gorengo erakundeari, Euskaltzaindiari, eta zelan ez, euskal idazle saiatuei.